

## UZTAILAREN 1ETIK, PNEUMOKOKOAREN KONTRAKO TXERTOAK JARTZEN ZAIE EAE-KO HAURREI, BI HILABETE BETETZEN DITUZTENEAN

Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumoko sailburu Jon Darponek joan den ekainaren 25ean iragarri zuenez, «maiatzaren 1etik aurrera jaiotako haurrei pneumokokoaren kontrako txertoaren lehen dosia jarriko zaie 2 hilabete betetzen dituztenean». Uztailaren 1ean hasita, beraz, Osakidetza osasun-zentroetan 3 dosi jarriko dira aurtengo urtarrilean onartutako txertaketa-egutegiari jarraiki: haurrek 2, 4 eta 12 hilabete dituztenean.

2015eko urtarrilaren 1aren eta apirilaren 30aren artean jaiotako haurrei dago-kenez, Sailburuak jakinarazi zuen 2015ean jaiotako haur guztiei eskainiko zaiela txertoa, kontuan hartuta, betiere, lehenagotik zenbat dosi jarrita dauzkaten.

Jaurlaritza ziur dago txertoa tresna eraginkor eta segurua dela eta horretan inbertitzea merezi duela. Horregatik, 2015ean 2,5 milioi euro gehigarri bideratuko ditu pneumokokoaren kontrako txertoa erostera.

EAEk beti izan du txerto-politika aktibo eta berritzailea, eta, gaur egun, txertaketa-estaldura onenarikoa du, hala Espainiako estatuan nola Europan: % 90etik gora, eta, are hobea, % 96 baino handiagoa, txerto garrantzitsuenei dago-kenez (difteria, tetanosa, kukutxetzula, poliomielitisa, b motako Haemophilus influenzae-a eta B hepatitis). Estaldura zabal horrek eragina du herritarren osasunean, eta txertoa duten gaixotasun gehienek intzidentzia eskasa dute EAEn.

Txertoak, Sailburuaren iritziz, gizarte- eta osasun-justiziako elementu dira; horregatik, Osasun Sailak txertaketa-egutegi egoki baten aldeko apustua egiten jarraituko du, gaixotasunak saihesteko eta ekitea bermatzeko.



Antxon Apiñaniz eta Raquel Cobos.

## ARABAKO ESKUALDEKO ETA ARABAKO IKERKETA-UNITATEKO PROFESIONALEK SARIA JASO DUTE SEMFYC-EN KONGRESUAN

Saritutako lana Raquel Cobos, Antxon Apiñaniz, Arantza Sáez de Lafuente, Naiara Parraza, Felipe Aizpuru eta Rocío Fernándezek aurkeztu zuten, eta lehen ikerketa-saria eman zieten Gijonen ekainean egin zen Espainiako Familia eta Komunitateko Medikuntzako Elkar-teraren kongresuan.

Lana ausazko saio kliniko bat da, eta horren helburu nagusia izan da tabako-arekiko mendekotasuna gainditzeko programa konbinatu baten eraginkortasuna ebaluatzea. Programa horretan, ohi ez bezala, pazienteei osasun-aholkua emateaz gain, sms-ak bidaltzen zaizkie telefonora. Programa 6 hilabete igaro ostean ebaluatu da, eta emaitza onak izan ditu: sms-koen taldean % 24k utzi zioten erretzeari, eta ohiko taldean % 12k. Horixe, saritzeko arrazoietako bat.



## FARMAZIAKO HIZTEGI BERRIA SAREAN

Farmazialariak beren eguneroko zereginetarako behar duten oinarrizko terminologia biltzen duen hiztegi berria aurkeztu berri du FEUSE Farmazialari Euskaldunen Elkartek.

Hau ez da FEUSEk argitaratzen duen lehen hiztegia. Duela urte batzuk argitaratu zuen Farmazialari Euskaldunen Elkartek UZEIk prestatutako Farmazia Hiztegia. Orain, hiztegi haren bertsio eguneratua eta osatua jarri du sarean, corpus berri batean oinarrituta UZEIk prestatu duena, hain zuzen ere. Guztira, euskarazko eta gaztelaniazko 3.642 sarrera biltzen ditu hiztegi berriak, eta 16 atal nagusitan sailkatuak daude sarrera horiek. Hiztegia edonoren eskura dago Farmazialari Euskaldunen Elkar-teraren webgunean: [feuse.info](http://feuse.info). [webgunearen esteka](#)

# «Hurrengo hamar urteak giltzarri izango dira»

## kike amonarriz

Telebista aurkezlea

Umoregintzan eta euskalgintzan aditua eta aritua da Kike Amonarriz (Tolosa, Gipuzkoa, 1961). *Tribuaren berbak* saioa egiten dihardu azken bi urtean, eta ekaineko saio batean, osasungintza izan zuen hizpide. Atal hura aitzakiatzat hartuta, elkarrizketa egin dio *Osatuberrik*.

**Tribuaren berbak saioan berriki Osakidetza izan duzue hizpide. Saio horren hasieran, erakundeari ekografia aterako zeniola aipatu zenuen. Horren irakurketa egin al zenezake?**

Hizkuntzaren normalizaziorako prozesuan motel eta berandu hasitako erakundea da Osakidetza. Orain, berriz, badaude zantzu positibo batzuk. Alde askotatik gertatu da hori. Batetik, profesionalen aldetik, badago eskaera, Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea dago hor. Erabiltzaileen aldetik, berriz, egindako eskaera eta unibertsitateko ikasleek egiten dutena ere badago. Bigarren euskara-plana hasita dago. Horrek prozedura azkartu beharko luke, eta, hemendik sei urtera, beste egoera batean egon. Mugimendua norabide onean doala ikusi dut, eta espero dut hala jarraitzea.

**Erakunde handia ez ezik, heldua ere bada. Hango langileen batez besteko adina 51 urte da.**

Bai, hori bada ezaugarri bat. Administrazio publikoko hainbat alorretan gertatzen da hori. Izan ere, Hego Euskal Herrian hamaika erakunde sortu ziren duela 30 urte, Hezkuntzan, Osakidetzan, Ertzaintzan... Adin-tarte hori errelebu eske dago. Errelebua ongi egingo balitz, euskaldunen proportzioa handitu egingo litzateke. Hor

«Edozein motatako erakundeen betebeharra da zerbitzua eskatu gabe ematea. 'Euskaraz nahi duzula? Euskaraz egingo zaizu ba'»

daukagu erronka. Lan-munduak aprobetxatzen du egoera hau, barne-inerziak astintzeko eta euskarazko dinamika abiarazteko, edo aukera bat galduko du, gero gure kontra bihurtuko dena.

**Nondik hasi behar du aldaketak?**

Neurri politiko-administratiboak behar dira. Horregatik, asko poztu nintzen jakin nuenean Osakidetzako egungo zuzendaria Osakidetzak izan duen lehen zuzendari euskalduna dela. Berak esan zuen bezala, ezinbestekoa da zuzendaritzen inplikazioa. Eta horrek ez du Osakidetzan bakarrik izan behar, baita beste erakundeetan ere. Erakundeetako euskara-planen ardura ezin du euskara-teknikariak bakarrik era-

man, zuzendaritzaren gai zentraletako bat izan behar du. Zuzendaritzatik eta erabakiguneetatik joan behar dute mugimenduek. Baina hori bakarrik ez da nahikoa. Behar du inplikazio soziala eta bestelako eragileen inplikazioa ere. Busti egin behar dute. Eta, noski, herri-tarrak motibatzen ere aprobetxatu behar da. Gogoan izan behar da inerziak aldatzea ez dela batere erraza. Ondarretako Osasun Zentroaren aurrean egin genuen inkesta da horren adibide argia. Batzuek ez zekiten medikua euskalduna zutela ere, eta, egia esan, neroni ez naiz askorik harritzen. Medikua ere gaitza ez da eroso. Erabiltzailea beti eskean doa, beldurtuta... Justizia-administrazioan ere antzeko zerbait gertatu zitzaigun. Jendea handik ahalik eta azkarrena irteteko gogoz sartzen da. Medikua euskalduna eskatzeak, beharbada, denbora gehiago pasatzea dakar. Eta, batzuetan, benetan izaten da hala. Horregatik aldatzen dute hizkuntza. Edozein motatako erakundeen betebeharra da zerbitzua eskatu gabe ematea. «Euskaraz nahi duzula? Euskaraz egingo zaizu ba».

**«Eskean» goazen erakundeetan gaztelaniaz egin behar delako uste okerrak indarrean jarraitzen al du?**

Kasu horietarako, benetan interesgarriak dira identifikazio-pinak. Hartara,





ARAITZ MUGURUZA

konfiantza ematen zaio pertsonari. Ingurunea euskaldunduta ere, mesfidantza asko sortzen dira, eta «egun on» batek hamaika muga puskatzen ditu. Agurrak identifikazio-sistemak dira.

**Hamaika ekintza egiten dira eta horietako asko alde bakarrekoak izaten dira. Aitor Montes medikuarenak ezagunak dira. Noraino hel daitezke halako ekimenak?**

Alde guztietakoak dira onak. Kasu horretan, Aitor Montesek bere aldetik egin ditu eskaerak, oso garbiak eta oso ongi arrazoituak; hor dago, hala berean, Osasungoa Euskalduntzeko Erakundearen jarduna ere. Azken ba-

tean, pertsona batek hainbat ekinbide hasten ditu, eta sarritan, gero ekimen antolatu bilakatzen dira. Dena den, horrelako plan batek aurrera egiteko, antolakuntzak garrantzi berezia du, eta, zer esanik ez, elkarlanak.

**Gehiago sakondu beharko al genuke horretan?**

Programan ikusi dut alde askok bat egiten dutela. Baldintzak badaude, eta uste dut borondatea ere badagoea. Ezin dugu aukera hau galtzen utzi.

**Zenbateko denbora-tarteaz ari zara?**

Hizkuntzari lotutako aldaketak oso epe luzetan gertatzen dira. Aldaketa

konplexuak dira. Euskaraz ez dakien batek lauzpabost urte behar ditu zer-bait ikasteko, eta euskarazko planek ere berdin. Hurrengo hamar urteak giltzarri izango dira lehen aipatu ditugun arrazoiengatik. Urrats kualitatiboak eta kuantitatiboak egin behar ditugu egoera aldatzeko.

**Osakidetzan dozenaka lagun ari dira euskara-maila egiaztatzen. Kontu horrek dena den baditu alde ilunak, denek ez dutelako gainditzen. Zorrotzegia ote da sistema?**

Tituluen sistema guztia berrikusi beharko genuke. Nik oso kanpotik ikusten dut, baina arazoak badaudela iruditzen zait. Esaterako, askotan titulua bera izan da helburua, eta kontrako joera gerta daiteke horrekin, baldin eta titulua ondo erabilerara bermatzen ez bada.

Pertsona bati ahalegina eskatu ondoren, ez badiogu erabilerara bermatzen, hark pentsa lezake, «zertarako egin dut hau?». Eta arrazoi osoarekin. Nire pertzepzioa da, kanpotik, sarritan garrantzi handia eman zaiola tituluari, eta ez behar beste ondorengo lanari, eguneroko jardunean euskara erabiltzeari. Frustrazio asko eta kasu batzuetan gehiegi ere sentitu dut. Zuhurtziaz diot, ez baina bil inguru horretan, baina...

**Euskaldun berri ugariarekin hitz egin duzu programan. Zer esan dizuete?**

Batetik, pazientzia eskatu digute, eta, bestetik, horren zorrotzak ez izateko. Hutsegite txiki bat egiteagatik erdarara jauzi ez egiteko eskatu digute.

**Barre egiteagatik ez dizuete ezer esan?**

Niretzat, hutsegite linguistikoak umore-iturri onenetakoak dira. Euskaldun berriek egindako hutsak umore-iturri ederrak dira. Baina oso desberdina da kontu horiek direla-eta barre egitea eta ikasten ari dena barregarri uztea.

## (Hona, nahasi ohi diren hitz-pare batzuk) gramatika

### HISTORIA eta ISTORIO

**Historia**ren adiera nagusia zera da: gizadiaren (edo gizarte edo giza talde baten) iraganaldiko gertaera gogoangarrien ezagutza edo kontakizuna. Bestalde, **historia klinikoa** esaten zaio pertsona batek izandako gaixotasun eta tratamenduak azaltzen dituen txostenari.

**Istoria**a, berriz, kontakizuna da; bereziki, kontakizun laburra, edo gertaldi harrigarria.

Horiek horrela, ez dirudi egokiak direnik, ez arestian burtsara ateratu den enpresa bateko arduradun batek esandako honek: «Gaur 'Enpresak' bere **istorioan** pauso garrantzitsu bat ematen du», ez eta beste nonbait irakurritako hau ere: «Beste hobekuntza nabari bat da artatzen zaituen osasun-profesionalak bere ordenagailuan pazientearen **istorio kliniko** osoa ikusi ahal izatea».

### PROBA eta FROGA

Oso hitz ezagunak eta erabiliak dira, baina ez dira gauza bera.

Adibidez, epaiketa-munduan edo zerbeit 'horrela dela' demostratzeko erabili beharreko hitza frogatza da, eta aditza, frogatu. Esaterako, ume baten gurasoa beste hura dela frogatzeko, **DNA probak** egin behar dira.

Osasun-munduan gehienbat probak dira: **esfortzu-proba**, **proba osagarria**, **diagnostikoa**, **funtzionalak**... Esaterako, alergia daukazula frogatzeko, medikuak larruazalean egiten dizkizunak **alergia-probak** dira. Edo emakume batek haurdun dagoela jakiteko egiten duen testa **haurdunaldiaren proba** da, eta ez **haurdunaldiaren frog**a.

Dakigunez, duela gutxi amaitu zen Osakidetzako lan-eskaintza publikoan izena emateko epea, eta **zerak** udazkenaren bukaeran egingo dira. Zer dira, ordea, zer horiek, **frogak** ala **probak**?

### JOKATU eta JOLASTU

Hitz biek jugar dute gaztelaniazko itzulpena –hortxe oraingoan ere koska– eta euskaraz honela bereizten dira: **lehia-kutsua duen jardunean ari dena jokatzeko ari da, jokoan; denbora-pasa hutsean ari dena, berriz, jolasteko, jolasean**. Azken kasu horretan aritzen dira, adibidez, haurrak, panpinekin-eta ari direnean, batere lehiarik gabeko zereginetan.

Gaur egun, ordea, «**jolastu**» aditzari egozten zaizkio berez «**jokatu**» aditzari dagozkion esanahi batzuk. Esate baterako, duela gutxi taldez aldatu den euskal futbolari profesional batek esan duenez, beraren oraingo taldeak «lehiaketa handietan **jolastu** behar du aurten ere». Jolasteagatik ordaintzen badiote, bejondeiola!

Beste alde batetik, erdaraz «**jugar**» aditzaren bidez adierazten diren batzuk euskaraz emateko orduan, beste aditz batzuk ere balia daitezke: «**kartetan egin, boleibolean aritu, padelean ibili**...».

Ariketak egiteko, klik egin hemen. [webgunearen esteka](#)

Iturria: EHUTSI, euskaraz egiten diren akatsak zuzentzeko aplikazio informatiboa (moldatau)

## agenda

### UDAKO EUSKARA-BARNETEGIAK

Uda honetan euskara-maila hobetu nahi duenarentzat.

[webgunearen esteka](#)

### OSASUN-ARLOKO PROFESIONALAK PRESTATZEKO BEKAK ETA LAGUNTZAK

Eskaerak aurkezteko epea zabalik uztailearen 31 arte.

[webgunearen esteka](#)

### BERDINTASUNERAKO II. JARDUNALDIAK: «GAINDITU GABEKO ERRONKAK».

Irailaren 1ean, Bilbon, UPV/EHuren Bizkaia Aretoa.

Izen-ematea: Jardunaldien webgunean, abuztuaren 28ra arte edo tokiak bete arte.

[webgunearen esteka](#)

### UPV/EHU-REN XXXIV. UDA-IKASTAROK: «OSASUNA ETXEAN».

Irailaren 3 eta 4an, Donostian, Miramar jauregian.

Zuzendaritza: Felix Zubia Olaskoaga, Donostia Unibertsitate Ospitaleko medikua.

[webgunearen esteka](#)

## unitate didaktikoa

Uda-giroan irakurtzeko ipuinak:  
Ana Urkiza, Iban Zaldia,  
Karmele Jaio eta  
Uxue Apaolaza

